



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2023ko irailaren 22a

12. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### E S A I L A:

##### **Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- 11-23/MOC-00029. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak arbuiatu egiten baitu edozein herritar talderentzako amnistia nahiz indultu orokor oro, edozein izanda ere egindako delitua. Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioak aurkeztu du (3. or.).
- 11-23/MOC-00030. Mozioa, zeinaren bidez Espainia herritar askeen eta eskubide nahiz betebeharrak dituztenen nazio bat dela aitortzen baita. Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioak aurkeztu du (5. or.).
- 11-23/DEC-00017. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Alzheimerraren Mundu Egunaren ospakizunarekin bat egiten baitu. Eledunen Batzarrak onetsi du (7. or.).
- 11-23/DEC-00018. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere elkartasuna eta babesa adierazi nahi baitizkio Libiako herriari, uholdeek eragindako hondamendi ikaragarriagatik. Eledunen Batzarrak onetsi du (7. or.).
- 11-23/DEC-00019. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Haur-minbiziarekin Sentsibilizatze Hilabetearen ospakizunarekin bat egiten baitu. Eledunen Batzarrak onetsi du (8. or.).

#### F S A I L A:

##### **Galderak:**

- 11-23/PES-00087. Galdera, Nafarroan ibilgailu elektrikoetan inbertitze aldera Foton Motor eta INCEISA enpresek eta Nafarroako Gobernuak sinatutako esparru-akordioari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (9. or.).
- 11-23/PES-00088. Galdera, haize-palak birziklatzeko Cortesko plantari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (10. or.).
- 11-23/PES-00089. Galdera, Laneko Arriskuen Prebentziorako Estatuko Fundazioak esleitutako funtsen kudeaketari buruzkoa. Aranzazu Izurdiaga Osinaga andreak egin du (12. or.).
- 11-23/PES-00090. Galdera, osasungintza pribatura bideratutako osasun-jardueraren konpentsazioari buruzkoa. Domingo González Martínez jaunak egin du (12. or.).

—11-23/PES-00091. Galdera, NUPEko Sarioko eraikinean IRIS-Nafarroako Berrikuntza Digitalaren Poloa paratzeari buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (13. or.).

**G SAILA:**

**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

—Ebazpena, Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariak emana, José Javier García Logroño jauna Nafarroako Kontuen Ganberako funtzionario izendatzen duena behin betiko, auditorearen kategoriarekin (14. or.).

---

**E saila:**  
**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

## **11-23/MOC-00029. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak arbuia egiten baitu edozein herritar talderentzako amnistia nahiz indultu orokor oro, edozein izanda ere egindako delitua**

### *NAFARROAKO ALDERDI POPULARRA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko irailaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak arbuia egiten baitu edozein herritar talderentzako amnistia nahiz indultu orokor oro, edozein izanda ere egindako delitua.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Lehendakaritza eta Berdintasun Batzordean izapidetu dadin, eta zuzenketak aurkezteko epea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan buka dadin ezartzea.

Iruñean, 2023ko irailaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Alderdi Popularraren talde parlamentarioak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Lehendakaritza eta Berdintasun Batzordean eztabaidatzeko:

Zioen azalpena

1977ko urriaren 15ean, gure trantsizioa demokraziara bideratu zuen adiskidetze nazionalaren printzipiori jarraikiz egindako Amnistia Legea onetsi zuen Diputatuen Kongresuak. Gizarteak amnistia eskatzen zuen, eta ezinbestekoa zen diktaduraren ordenamendu juridikoa aurkaratzeko. Espainiako gizartearen parte batek pairatu zuen errepresioari amaiera eman zion tresnetako bat izan zen, demokraziarako bidea sendotu zuen akordio handietako bat.

1978ko Konstituzioa izapidetu zen bitartean, amnistiaren auzia eztabaidatu zen, bi zuzenketa aurkeztu baitziren Gorte Nagusiek eskumen hori eduki ahal izan zezaten. Zuzenketa haiek ez ziren onetsi; aldiz, indultu orokorrak debekatzen dituen 62. artikulua onetsi zen. Alegia, barkamena –zeina gure ordenamenduan bai baitago eta Indultuari buruzko Legeak arautzen baitu– nahitaez izanen da banakakoa, sekula ere ez orokorra.

Demokrazia europar sendotu batean –2023ko Espainiako demokrazia, kasu–, amnistia zuzenbide estatuaren oinarriko zenbait printzipioren aurkakoa da, hala nola botere judizialaren eksklusibotasuna epaitzeko eta epaitutakoa betearazteko, berdintasuna legearen aplikazioan edo segurtasun juridikoa. Ez legegileak ez botere betearazleak ezin dute beretzat hartu pertsona-talde bat immune deklaratzeko ahalmena, edo haien delituak ezabatzea, ez eta beste edozein herritarren modura epaituak izatea ekiditekoa ere. Hain gutxi EBko Justizia Auzitegiak eta Giza Eskubideen Europako Auzitegiak balizko amnistia mahai gainean jarri den eta Espainiari eragiten dion auzi horri buruzko epaiak eman behar dituztenean.

2017an, Kataluniako botere publikoen matxinada-saiakera bat gertatu zen, ordena konstituzionalaren aurkakoa. Zuzenbide Estatuak Konstituzioaren 155. artikulua aplikatuta eta sustatzaileen aurka zigor-tresnak abiarazita erantzun zion saiakera hari.

Auzitegi Gorenak saiakeraren buruzagiei 9 urtetik 13 urtera bitarteko kondenak ezarri zizkien, albaramenduagatik eta ondasun publikoak bidegabe eralgitzeagatik. Arduradun nagusi haietako batzuek atzerrira ihes egin zuten. Orduetik hona, Espainiako nahiz Europako auzitegien akzioa ekiditen saiatzen ari dira. Ez zen izan hori egin zuen bakarra. Iragan irailaren 5ean, Puigdemontek Espainiaren gobernagarritasuna baldintzatu zuen,

besteak beste, 2017ko erreferendum ilegala dela eta auzipetutakoei –zenbait kasutan, muturreko indarkeriazko gertakariengatik– mesede eginen dien amnistia lege bat onestera.

Ez da auzi hori planteatzen den lehen aldia. Izan ere, 2021ean antzeko ekimen bat aurkeztu zen Kongresuan, eta legegariak ekimena izapidezaren aurkako txosten biribila egin zuten. Izan ere, Pedro Sánchezek berak eta bere Gobernu ministro Juan Carlos Campok, Fernando Grande Marlaskak eta Carmen Calvok nahiz beste buruzagi sozialista askok ere adierazia dute balizko amnistia bat konstituzioaren kontrakoa litzatekeela.

Egitate juridikoak berberak dira, baina inguruabar politikoak dira aldatu direnak. Pedro Sánchez, Gobernu lehendakari izaten jarraitzeko ahalegin etsi-etsian, prest azaldu da lege-proposamen bat izapidetu dadin. Konstituzioaren kontra nabarmen joateaz gain, lasterbide bat baliatu nahi da beste behin, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren, Fiskaltzaren eta Estatu-Kontseiluaren legezkotasun-kontrolak saihesteko.

Lehendakaritza lortzearen prezioa, ehunka delitu errugabetzea ez ezik, Zuzenbide Estatu deslegitimatzea eta gertatu zen albaramendua zuritzea eta legitimatzea izanen litzateke. Labur esanda, prezio politiko jasanezina edozein agintari

zintzorentzat, zeren Gobernuak berariaz eta irmo ez arbuiatzea astindu sakona eragiten ari baita gizartean.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Parlatuak:

1. Arbuiatu egiten du edozein herritar-talderentzako amnistia edo indultu orokor oro, egindako delitua zein ere den.

2. Uste du herri-borondatearen adierazpidea dela legearen inperioa, Konstituzioaren hitzaurrean ezartzen denez, eta botere guztiak daude hura betetzera konprometituta.

3. Bi alderdi nagusiei dei egiten die Estatu-akordioak bila ditzaten, Espainiako gizartea alderdi independentisten legez kontrako baldintzetara makurtu beharra ekiditeko.

4. Erabakiok honako hauei helaraziko die: Gobernu lehendakariari, lehen lehendakariorde eta gai Ekonomikoetako eta Eraldaketa Digitaleko Ministerioari, bigarren lehendakariorde eta Lan eta Gizarte Ekonomiako Ministerioari, Lurralde Politikako Ministerioari eta Kongresuko eta Senatuko eledun parlamentarioei.

Iruñean, 2023ko irailaren 14an

Eleduna: Javier García Jiménez

## 11-23/MOC-00030. Mozioa, zeinaren bidez Espainia herritar askeen eta eskubide nahiz betebeharrak dituztenen nazio bat dela aitortzen baita

### NAFARROAKO ALDERDI POPULARRA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko irailaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainia herritar askeen eta eskubide nahiz betebeharrak dituztenen nazio bat dela aitortzen baita.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Lehendakaritza eta Berdintasun Batzordean izapidetu dadin, eta zuzenketak aurkezteko epea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan buka dadin ezartzea.

Iruñean, 2023ko irailaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Alderdi Popularra talde parlamentarioak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Lehendakaritza eta Berdintasun Batzordean eztabaidatzeko:

Zioen azalpena

Orain dela 45 urte, herritar askeen eta eskubide nahiz betebeharrak dituztenen nazio bilakatu gintuen konstituzio bat onetsi genuen espainiarrok. Akordio historiko bat izan zen, desadostasuna amaiaraztea bilatzen zuen gizarte baten gehiago handi-handi batek berretsia.

Bi indar politiko nagusiak ados jarri izanaren fruitua izan zen, gero alderdi politiko demokratiko guztiei zabaldu zitzaiena.

Akordio hark lehendabiziko artikuluan bertan aitortzen zuen berdintasuna dela ordenamendu juridikoaren balio gorena, eta bederatzigarren artikuluan, berriz, botere publikoak behartzen zituen norbanakoen nahiz taldeen berdintasunerako baldintzak egiazkoak eta eraginkorrak izan zitezkeen, eta berdintasuna eragozten duten trabak kendu beharra zegoela.

Ez bakarrik hori: 14. artikulua lehendabiziko eskubide eta askatasun gisa ezartzen zuen

“espainiarrak legearen arabera berdina direla, eta ezin dela inolako bereizkeriarik egin jaiotza, arraza, sexu, erlijio, iritzi nahiz bestelako ingurubar edo egoera pertsonal edo sozialak aintzat hartuta”.

Hortaz, espainiarren arteko berdintasuna da gure ordenamendu juridikoa funtsatzen duten printzipioetako bat, gure arteko bizikidetasunaren zutabeetako bat.

Espainiarren arteko berdintasuna, non bizi diren ere. Hortaz, printzipio hori solidaritate-printzipioaren eskutik doa; izan ere, 138. artikulua dioenez, "Estatuak bermatzen du solidaritate-printzipioa, Konstituzioaren 2. artikuluan aldarrikatua, eragingarritasunez betetzea; horretarako, Espainiako lurraldeko toki desberdinen artean oreka ekonomiko egoki eta zuzena ezar dadin begiratu du, eta, bereziki, uharteen egoera hartuko du kontuan", eta orobat baztertzen da autonomia-erkidegoen estatutuen arteko aldeek pribilegio ekonomikoak edo sozialak ekarri ahal izatea.

Gure autonomia-prozesua garatu bidenabar, lurraldeak bateratuz joan dira autogobernu-maileri dagokienez, halako moduan non Espainia deszentralizazio-eredu bilakatu baita. Prozesu horrek ahalbidetu du, hain zuzen ere, gurea Zuzenbide Estatu moderno izatea Estatu erakunde guztiek egiten duten lanari esker (Gobernu zentrala, autonomia-erkidegoetako gobernuak, udalak, diputazioak, Consellak eta uharteko kabildok).

Hamarkada hauetan zehar, gainera, Konstituzio Auzitegia izan da bermatu duena legedia eta, bereziki, autonomia-estatutuak, beti ere gure Konstituzioan ezarritakoarekin bat zetozela.

Garapen politiko, juridiko eta administratibo hori aberastu egin da guk Europar Batasunean parte hartzean, herrien eta lurraldeen arteko solidaritate-eredu bai baita.

Hori guztia mehatxupean da orain, espainiarren arteko berdintasuna eta solidaritatea hautsi nahi duten proiektuak eta autonomia-erkidegoen eta herritarren arteko desberdinkeria eta pribilegioa ezartzea sustatzen duten mutazio konstituzionaleko proposamenak direla-eta. Desberdinkeria hori areagotu egiten da espainiarren eguneroko bizitzan, tentsio ekonomiko, teknologi-

ko eta demografikoak direla-eta. Egun, Espainian, berdintasuna inoiz baino mehatxatuagoa dago.

Horregatik guztiagatik, erabakitasunez heldu behar zaie autonomia-erkidegoak zatitzen dituzten auziei –esate baterako, uraren auziari– eta ongi-zate estatuaren erronkei, gizarte-errealitatea sakonki aldatzen ari baita, eta beharrezkoa da gure ekonomiaren oinarriak sendotzea. Halaber, geroko utzi ezin diren helburuak dira, besteak beste, erakundeen eraberritzea eta lurralde-itun berri bat lortzea, Konstituzioan aurreikusitakoa osatzeko.

Lau hamarkada luze hauetan zehar, bi alderdi nagusiok akordioak lortzeko gai izan gara hainbat erronkari aurre egiteko, hala nola gizarte eta ekonomia arlokoei –Moncloako Itunak–, terrorismoari –Askatasunen Ituna–, indarkeria matxistari –Genero-indarkeriaren aurkako Ituna– eta 2017ko erronka sezesionistari –155. artikulua–. Elkarrekin bihurtu dugu Espainia Europar Batasunean protagonista, eta elkarrekin hartu dugu hainbat eta hainbat konpromiso nazioartean.

Beste erronka historiko bat daukagu orain; izan ere, gutxiengo populista eta separatista batek espainiarren arteko berdintasunaren haustura inposatu nahi du, eta, horretarako, bi alderdi nagusiok akordio nazional zabal bat lortzeko gaitasun ezaz baliatzen da.

Beste behin ere, espainiarrok gure onena eman beharra dugu. 1978an gertatu zen moduan, eskuzabaltasunez eta haraindiko ikuskeraz jokatuz, alderdi nagusiok gure bizikidetasunaren oinarriak finkatu behar ditugu, eta nazio garen aldetik dauzkagun mehatxuei aurre egin, gizarte moderno, aurreratu eta plural bat eraikitzen jarraitzeko.

Denona dena denon artean erabaki behar dugu, eta adostasun konstituzionalaren oinarriak ezin dira gutxiengoaren gutziaren mende egon, gutxiengo horien itzala handia izan arren koiuntura parlamentario jakin bat baliatzen dutelako.

Akordio handi bat bilatu beharra dago 45 urte hauetan lortutako guztia finkatzeko, espainiarren arteko berdintasuna blindatzeko eta XXI. mendeko hirugarren hamarkada honetako erronka nagusiei aurre egiteko.

Hori dela eta, Alderdi Popularra talde parlamentarioak honako mozio hau aurkezten du:

1. Espainia herritar askeen eta eskubide nahiz betebeharrak berberak dituztenen nazio bat dela aitortzen dugu.

2. Berdintasuna hautsi edo Espainiaren zati bateko herritar edo lurraldeei pribilegioak aitortzen dizkien eta Espainiako Konstituzioak ezarritakoaren aurka doan proiektu oro arbuiatzen dugu.

3. Akordio nazional zabal bat proposatzen dugu, esku artean ditugun erronka nagusiei aurre eginen diena: erakundeen eraberritzea, gizarte ongizatea, gure ekonomiaren oinarriak, familien aldeko itun bat, uraren aldeko itun bat eta lurralde-itun bat.

4. Gobernua premiatzen dugu finantzaketa autonomikorako eredu bat proposa dezan, berdintasun eta elkartasun printzipioak bermatuko dituen eta guztion arteko adostasunaren fruitu izanen dena. Alde bakarreko pribilegio oro arbuiatzen dugu, autonomia-erkidego guztien adostasunetik at.

5. Gobernuari eskatzen diogu udalak, diputazioak eta kabildoak finantzatzeko esparru bat berma dezan, askitasunean, solidaritatean eta ekitatean oinarrituta.

6. Erabakiok honako hauei helaraziko die: Gobernuko lehendakariari, lehen lehendakariorde eta gai Ekonomikoetako eta Eraldaketa Digitaleko Ministerioari, bigarren lehendakariorde eta Lan eta Gizarte Ekonomiako Ministerioari, Lurralde Politikako Ministerioari eta Kongresuko eta Senatuko eledun parlamentarioei.

Iruñean, 2023ko irailaren 14an

Eleduna: Javier García Jiménez

## **11-23/DEC-00017. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Alzheimerren Mundu Egunaren ospakizunarekin bat egiten baitu**

### *ELEDUNEN BATZARRAK ONETSI DU*

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2023ko irailaren 18an egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

"1. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Alzheimerren Mundu Eguna ospatzearekin.

2. Nafarroako Parlamentuak uste du funtsezkoa dela ikerketa sozial, sanitario eta biomedikoaren aldeko apustua egitea, pertsonen bizi kalitatea hobetzeko xedez.

3. Nafarroako Parlamentuak ekitaldi bat egingen du heldu den irailaren 21ean, osteguna, eguerdiko 12:00etan, AFAN elkartearen parte-hartzearekin.

4. Nafarroako Parlamentuak irailaren 21ean, ostegunez, bere fatxada magenta kolorez argiztatzea erabaki du".

Iruñean, 2023ko irailaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

## **11-23/DEC-00018. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere elkartasuna eta babesa adierazi nahi baitzizio Libiako herriari, uholdeek eragindako hondamendi ikaragarriatik**

### *ELEDUNEN BATZARRAK ONETSI DU*

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2023ko irailaren 18an egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

"1. Nafarroako Parlamentuak bere elkartasuna eta babesa adierazi nahi dizkio Libiako herriari, uholdeek eragindako hondamendi ikaragarriatik. Halaber, elkartasuna adierazten die gure erki-degoan bizi diren libiar guztiei.

2. Nafarroako Parlamentuak bere doluminak eta nahigabe sakona helarazi nahi dizkie hildakoen familiei eta gertukoei, bai eta bere hurbiltasuna eta atsekabea ere.

3. Nafarroako Parlamentuak errespetua eta miresmena adierazten die erreskate eta salbamendu lanetan jardun duten pertsona eta erakunde guztiei.

4. Nafarroako Parlamentuak Libiak Madril duen enbaxadari igorriko dio adierazpen instituzional hau".

Iruñean, 2023ko irailaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **11-23/DEC-00019. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Haur-minbiziarekin Sentsibilizatzeko Hilabetearen ospakizunarekin bat egiten baitu**

### *ELEDUNEN BATZARRAK ONETSI DU*

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2023ko irailaren 18an egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

"1. Nafarroako Parlamentuak Haur-minbiziarekin Sentsibilizatzeko Hilabetearen ospakizunarekin bat egiten du.

2. Nafarroako Parlamentuak ekitaldi bat egingen du heldu den irailaren 22an, ostirala, eguerdiko

11:00etan, ADANO elkartearen parte-haritzearekin.

3. Nafarroako Parlamentuak irailaren 22an, ostirala, fatxada urre kolorez argizatzea erabaki du".

Iruñean, 2023ko irailaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias



---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**11-23/PES-00087. Galdera, Nafarroan ibilgailu elektrikoetan inbertitze aldera Foton Motor eta INCEISA enpresek eta Nafarroako Gobernuak sinatutako esparru-akordioari buruzkoa***ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko irailaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galdera, Nafarroan ibilgailu elektrikoetan inbertitze aldera Foton Motor eta INCEISA enpresek eta Nafarroako Gobernuak sinatutako esparru-akordioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko irailaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak, Erregelamenduko 215. artikuluan ezartzen denari jarraikiz, galdera hauek aurkezten ditu, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun ditzan:

2010eko irailaren 25ean, Foton Motor eta INCEISA enpresek eta Nafarroako Gobernuak esparru-akordio bat sinatu zuten Shanghain (Txina), xede harturik "elkarrekin lan egitea, Nafarroan ibilgailu elektrikoetan inbertitzeko eta ibilgailu horiek eta beren osagaiak ekoiztu eta merkaturatzeko akordio batera iristeko, proiektzioa izanen zuena Espainian, Europar Batasunean eta Hego Amerikan".

1.- FOTONek aurkeztu al zuen Nafarroan ibilgailu elektrikoak ekoizteko lankidetzaplana, akordioan aurreikusten zen moduan?

2.- Nafarroako Gobernuak prestatu egin al zuen ibilgailu elektrikoak merkatuak Europan bizi duen egoerari buruzko azterlana, akordioan aurreikusten zen moduan?

3.- Nafarroako Gobernuak egin al zuen ibilgailu elektrikoak ekoizteko beharrezkoak diren osagaien balizko hornitzaileei buruzko ikerketa Nafarroako Foru Komunitatean, akordioak aurreikusten zuen moduan?

4.- Nafarroako Gobernuak zer baliabide jarri zituen helburuen lorpenerako, akordioan aurreikusten zen moduan?

5.- Zehaztu eta sinatu al ziren hiru alderdien arteko merkataritza-lankidetzarako kontratuko legezko agiriak, akordioan aurreikusten zen moduan?

6.- FOTON iritsi al zen INCEISAk Tafallan zuen lantegian (Barranquiel industrialdea) inbertitu eta kokatzera, akordioan aurreikusten zen moduan?

7.- Zenbat diru bideratu zuen Nafarroako Gobernuak Tafallako lantegia eraikitzeke inbertsio-laguntzetan?

8.- Nafarroako Gobernuak berreskuratu al du, guztiz edo hein batean, Txinako enpresa horietakoren bati inbertsiorako laguntzengatik edo FOTON eta INCEISArekin eginiko akordioaren xedera bideratutako beste batzuegatik erreklamaturikoa?

Iruñean, 2023ko irailaren 8an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

## 11-23/PES-00088. Galdera, haize-palak birziklatzeko Cortesko plantari buruzkoa

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko irailaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galdera, haize-palak birziklatzeko Cortesko plantari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko irailaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek aurkeztu dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan eta Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun ditzan:

Energia eolikoa energia sortzeko iturrietan bigarrena zen Europan 2019an. Energia-ahalmen hori 20-25 urteko bizitza duten turbina eolikoek sortua da. Parke eolikoek eraispenetik heldu den pala piloa gero eta handiagoa izanen da denborak aurrera egin ahala, halako moduan non ingurumen-arazo bat gertatuko baita, gaur egun denak joaten direlako zaborteaira. 2025ean, adibidez, 500.000 hondakin-tona pala —324.738 tona beira-zuntz— sortuko dira Europan.

Espainiako estatuan, 2018an, 1.123 parke eoliko zeuden, 807 udaletan banaturik. Guztira, 20.306 aerosorgailu ziren, 23,5 Gwko potentzia eoliko metatua zutenak (instalaturako 0,2 palatonaren balioa, hain zuzen ere). 2013tik 2017ra bitarte —krisiaren ondorioz— eten bat gertatu bazen ere, Espainiako estatua da munduan bosgarren herrialdea eta Europan bigarrena potentzia eoliko gehien zeukana instalatuta 2018an, eta horrek erakusten du aerosorgailu-pala asko eta asko daudela hondakin bihurtuko direnak beren balio-bizitza amaitzen denean, 20- 25 urte barru gutxi gorabehera.

Bestalde, egoera ez da ezberdina dekomisioaren eta berrindartzearen arloan, Europan dagoen

joerari jarraikiz, oso gutxi baitira azken urteotan bere bizitzaren amaierara iristen diren aerosorgailuak, nahiz eta aurreikuspenen arabera esponentzialki handituko diren datozen urteetan. Adibidez, Espainiako estatuan 2050ean ia 100.000 hondakin-tona pala egonen bide dira.

Aerosorgailu bat, oro har, lau atalek osatzen dute: zimendua, dorrea, kaxa eta haize-errotorea. Pisuaren ehuneko 60tik 95era bitarte hormigoiarena izan ohi da, ehuneko 30etik 35era bitarte al-tzairuarena, ehuneko 5 baino gutxiago ordeko materialena eta ehuneko 2tik 3ra bitarte polimeroena. Material horietako gehienek birziklatze-ratio handia dute beren balio-bizitza amaitzen denean. Erronkarik handiena, halere, palek daukaten polimeroak birziklatzeak dakar. Beira-zuntzez sendotutako plastikoak material konposatuak dira, erretxina termoeogonkorreko edo termoplastikoko matrize batek osatuak, beira-zuntzez sendotuak. Material arinak dira, erresistenteak eta moldekatzen erraz-errazak; hori dela-eta, sarri erabiltzen dira, zurruntasun handia ematen dutelako.

Horregatik guztiagatik, argi dago ezen palak, erabileratik at daudenean, ingurumen-arazo handia eraginen duten hondakina direla, hain baita handia horien kantitatea eta bolumena. Gaur egun ez dago erabileratik at dauden aerosorgailu-palak kudeatzeko berariazko metodorik, eta zuzenean doaz zaborteaira, ez baitago legerik edo zuzentzaririk horien balio-bizitza amaitzen denean zer egin ezartzen duenik, eta ingurumen-inpaktu negatiboa oso handia da.

Gainera, osagai geldo eta ez-biodegradagarria da, baina moztu, xehatu edo birrinduz gero, beira-zuntzetik sortzen den hautsa oso arriskutsua da gizakien osasunerako baldin eta arnasten edo irensten bada edo larruazalarekin kontaktuan jartzen bada, arnasa hartzeko zailtasuna eta larruazalaren narritadura eragiten duelako. Beira-zuntza arnastuz gero, pertsona sentiberen kasuan larrigotu egin daitezke asma edo bestelako arnas-eritasun kroniko batzuk; are gehiago, hauts-partikula txikiagoak ere kaltegarriak izan daitezke osasunerako, biriketako alderik sakonenetara iristen ahal direlako.

Zaborteagiarenaz gain, errausketa da beste aukera bat (konposite produktua lortzeko erabiltzen den energiaren ehuneko 10 baino ez da berreskuratzen erraustean). Gainera, errausketa-

prozesuan arazo tekniko ugari ematen direla frogatu da, errekuntza-gasean zuntzak daudelako, gasa garbitzeko sistema kaltetzen dutenak, bai eta desagerrarazi beharreko errauts hegalaria ugari ere, eta horri gehitu behar zaizkio errausketan jaulkitzen diren gasek eragindako arazoak. Horregatik guztiagatik, palen balio-bizitzaren amaierarako azken aukera izan beharko lirateke bai zaborte-gia bai errausketa.

Aerosorgailu-palen tratamendurako beste aukera batzuk ere badaude, eta horiek ere arazoak ematen dituzte:

-Tratamendu mekanikoa. Zuntzak eta matrizea birrintzea da. Material konposatua birrintu, eho edo gisako prozesuen bidez hausten da. Merkea da, baina zuntzentzat oso erasokorra eta suntsitzailea da. Kasu horretan, beira-zuntza onik berreskuratzen da eta nahasketa bituminosoetarako baliatzen da. Horrek duen abantaila da zuntzaren luzerak motza izan behar duela, eta berdin dio erretxina-hondarrez inpregnatuta badago ere.

-Tratamendu kimikoa. Horren helburua da despolimerizazio kimikoa edo matrizea desagerraraztea eta beira-zuntzak askatzea gero birziklatzeko disolbatzaileak eta produktu kimiko organikoak edo ez-organikoak erabiliz, 450<sup>o</sup> zentigradutik beheko tenperaturekin eta 250 bar inguruko presioarekin, matrizearen polimerizazio-gradua zein den.

-Tratamendu termikoaren bidez. Pirolesia da teknikarik ohikoena gaur egun. Zuntzen gaineko efektu oxitermikoak murriztu egiten ditu zuntzaren hasierako propietate mekanikoak. Tenperatura altua erabiltzen da (300<sup>o</sup>-tik 1000<sup>o</sup> zentigradura bitarte) erretxina deskonposatzeko eta beira-zuntzak bereizteko. Beira-zuntz garbiak eta filler-a lortzen dira, eta bigarren mailako erregaia lor daiteke (errautsu egiten dena), edo pirolisiaren, gasifikazioaren edo errekuntzaren bidezko energia termikoa.

Iragan urtarrilaren 19an ezagutu zen "aerosorgailu-palak birziklatzeko planta bat eraikitze proiektua", zeina EnergyLOOP enpresak –Iberdrolak eta Fomento de Construcciones y Contratas enpresek osatua– sustatu baitu. 10 milioi euroko inbertsioa egiten lukeen ekimen horrek ia hiru milioi euroko laguntzak jasotzea aurreikusten du,

bai eta birziklapenerako eta birmanufakturaziorako onetsitako zerga-kenkariak ere.

Nafarroako Gobernuak banatutako prentsa-ohar ofizialaren arabera, proiektuak foru gobernuaren babesa du, "herrialde hau energia berriztagarrien abangoardian jartzen duen jarduketa estrategikoa" delako, "berrikuntza teknologikoa eta zirkulartasuna jasotzen baititu eta erregio-mailako espezializazio adimentsuarekin bat baitator".

Ekologistek auzitan jarri dute Cortesen eraikiko den planta egiaz birziklatze-plana denik. Hortaz, beharrezkoa da gobernuak argitzea egiaz zer planta-mota den eta zer tratamendu-mota baliatu den bertan.

Horrenbestez, honako galdera hauek aurkezten ditut, idatziz erantzun dakien:

1. Iragarri den Cortesko planta aerosorgailu-palen tratamendurako planta bat besterik ez da izanen ala egiazko birziklatze-planta bat izanen da?

2.- Cortesko plantan palei emanen zaien tratamendua materialak banatzeko prozedura –ondoren balorizatzeko– besterik ez da izanen?

3.-Balorizazio hori errausketaren bidezko balorizazio energetikoa izanen da soil-soilik?

4.-Zer tratamendu-metodo ezarriko da zehatz-zehatz Cortesen paratuko den plantan? Mekanikoa, kimikoa ala termikoa izanen al da?

5.-Nafarroako Gobernuaren ustez, tratamendu kimikoak edo termikoak ekonomia zirkularraren berezko birziklatze-sistemak al dira?

6.- Gobernuak ba al daki Cortesko plantan sartzen diren aerosorgailu-palen tona guztietatik zenbat baliatzen ahalko diren materialak berrerabiltzeko eta berreskuratzeke?

7.-Nafarroako Gobernuak edo bere merkataritza-sozietateek zer laguntza zuzen emanen diote ekimen horri? Zenbat egiten dute guztira laguntza horiek?

8.-EnergyLOOP merkataritza-sozietateari zer zerga-arintze aplikatuko zaio? Zer kontzeptutan aplikatuko zaizkio?

Iruñean, 2023ko irailaren 8an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

## 11-23/PES-00089. Galdera, Laneko Arriskuen Prebentziorako Estatuko Fundazioak esleitutako funtsen kudeaketari buruzkoa

ARANZAZU IZURDIAGA OSINAGA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko irailaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aranzazu Izurdiaga Osinaga andreak egindako galdera, Laneko Arriskuen Prebentziorako Estatuko Fundazioak esleitutako funtsen kudeaketari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko irailaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioaren eledun Arantxa Izurdiaga Osinaga andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Nafarroako Gobernuak nola kudeatuko ditu Laneko Arriskuen Prebentziorako Estatuko Fundazioak 2023ko ekitaldirako esleitutako 400.814,41 euroko funtsak?

Iruñean, 2023ko irailaren 8an

Foru parlamentaria: Arantxa Izurdiaga Osinaga

## 11-23/PES-00090. Galdera, osasungintza pribatura bideratutako osasun-jardueraren konpentsazioari buruzkoa

DOMINGO GONZÁLEZ MARTÍNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko irailaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Domingo González Martínez jaunak egindako galdera, osasungintza pribatura bideratutako osasun-jardueraren konpentsazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko irailaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Txomin González Martínezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarrita-

koaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Osasuneko konpentsazioari idatziz erantzun dezan:

Honako hau dio urriaren 20ko 1207/2006 Errege Dekretuak, Osasun Kohesiorako Funtsaren kudeaketa arautzen duenak:

“Osasun Kohesiorako Funtsak, 21/2001 Legearen bidez sortuak (21/2001 Legea, abenduaren 27koa, erregimen komuneko autonomia erkidegoen eta autonomia-estatutudun hirien finantziario sistema berriko neurri fiskal eta administratiboak arautzen dituena), xede du osasun-laguntzako zerbitzu publikoak eskuratzeko aukeretan berdintasuna bermatzea Espainiako lurralde osoan, eta herritar desplazatuak ere artatzea, Europar Batasuneko herrialdeetakoak edo Espainiarekin elkarrekin osasun-laguntzarako hitzarmenak dituzten herrialdeetakoak direnean.

Osasun eta Kontsumo Ministerioari dagokio horren kudeaketa eta banaketa. Maiatzaren 28ko 16/2003 Legeak, Osasun Sistema Nazionalaren kohesioari eta kalitateari buruzkoak, zerbitzuen

antolaketa arrazionalizatzeko eta sisteman efizientzia sartzeko kalitate-bermeen politikari dagokionez, 28. artikuluan arautzen ditu erreferentziazko zerbitzuak, eta xedatzen du Osasun Sistema Nazionaleko Lurraldearteko Kontseiluaren baitan izendatuko direla, plangintza-ikuspegi orokor batekin, eta horietan ematen den arreta Osasun Kohesiorako Funtsaren kontura finantzatzeko dela...”.

Nafarroan, badaude zorro komunean jasotako zenbait prestazio, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak zuzenean ematen ez dituenak (bihotz-transplanteak, giltzurrun-transplanteak...). Prestazio horiek osasun-zentro pribatuek, Nafarroako Klinika Unibertsitarioak eta abarrek ematen dituzte usu, eta Osasunbideak finantzatzen ditu. Horrelako laguntza-jarduerak egiten dituen osasun-zerbitzu publikorik ez duten autonomia-erkidegoetan, Erreferentziazko Zentro, Zerbitzu eta Uni-

tateek (EZZU) ematen dituzte prestazio horiek, eta Osasun Kohesiorako Funtsaren bidez finantzatzen dira.

Hori dela-eta, honako hau jakin nahi dut:

- Osasunbideak finantzatzeko eta entitate pribatuek emandako zorro komuneko osasun-prestazioen kostua (bihotz-transplanteak, giltzurrun-transplanteak...) zer prozeduraren bidez konpentsatzen edo itzultzen du Osasun Ministerioak edo Espainiako Gobernuak?

- Kostu horren zer ehuneko konpentsatzen du Osasun Ministerioak edo Espainiako Gobernuak? Parekagarria al da Osasun Kohesiorako Funtsak ematen duen finantzaketarekin?

Iruñean, 2023ko irailaren 13an

Foru parlamentaria: Txomin González Martínez

## 11-23/PES-00091. Galdera, NUPeko Sarioko eraikinean IRIS-Nafarroako Berrikuntza Digitalaren Poloa paratzeari buruzkoa

### ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko irailaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Eche garay jaunak egindako galdera, NUPeko Sarioko eraikinean IRIS-Nafarroako Berrikuntza Digitalaren Poloa paratzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko irailaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Ángel Ansa Eche garay jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen dena-

ren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

2022ko uztailaren 18an, Nafarroako Gobernuak prentsa-ohar bat argitaratu zuen. Haren bidez, IRIS-Nafarroako Berrikuntza Digitalerako Gunea NUPeko Sarioko eraikinean paratzeari buruzko informazioa ematen zen, eta adierazten zen lanak 2023aren lehen erdian amaituko zirela.

1.- Zertan dira lan horiek galdera honi erantzuten zaion egunean?

2.- Amaituta ez badaude, noiz amaituko dira egiazki?

3.- Instalazioaren azalera fisikoa eta banaketa.

4.- Eskainiko dituen zerbitzuen zerrenda xehaketa.

5.- Zerbitzu horiek emateko izanen dituen langileak. 6.- Funtzionamendurako beharko duen urteko aurrekontu zenbatetsia.

Iruñean, 2023ko irailaren 13an.

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Eche garay

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

## **Ebazpena, Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariak emana, José Javier García Logroño jauna Nafarroako Kontuen Ganberako funtzionario izendatzen duena behin betiko, auditorearen kategoriarekin**

Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariaren 2021eko ekainaren 1eko Ebazpenaren bidez, deialdi bat onetsi zen Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko auditoreen bi lanpostu huts oposizio-lehiaketa bidez betetzeko. Deialdi hori 2021eko 147. Nafarroako Aldizkari Ofizialean, ekainaren 24koan, eta 2021eko 86. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean, ekainaren 24koan, argitaratu zen.

2022ko abuztuaren 31ko Ebazpen baten bidez, José Javier García Logroño jauna Nafarroako Kontuen Ganberako funtzionario izendatu zen behin-behinean, auditorearen kategoriarekin, eta, deialdian ezarritakoarekin bat, urtebeteko praktikaldia gainditu beharra ezarri zitzaion auditore behin betiko izendatu aurretik.

Praktikaldia bukatuta eta behar bezala gaindituta, kalifikazio epaimahaiak behin betiko izendapen proposamena igorri du, izangaiak gai kalifikazioa lortu baitu.

Azaldutakoa kontuan harturik eta deialdiaren 10.1 oinarrian xedatutakoari jarraikiz, lehendakari honek, bere ahalmenak eta eskumenak erabiliz,

**EBAZTEN DU:**

**Lehena.**– José Javier García Logroño jauna Nafarroako Kontuen Ganberako funtzionario izendatzea behin betiko, auditore kategoriarekin. Izendapenak 2023ko irailaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

**Bigarrena.**– Ebazpen hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgunean argitara dadila xedatzea, eta interesdunari jakinarazteko agintzea.

Iruñean, 2023ko irailaren 14an

Lehendakaria: Ignacio Cabeza del Salvador



